

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko azaroaren 27a / 269. zenbakia

- HERRIKO KONTUAK **Gaztetxea sortzeko ados** 05
- KIROLA **3x3ko saskibaloia sanikolasetan** 08
- AIAKO ELKARRIZKETA **Antxon Gomez** 10

- ADARRETATIK HELDUTA **Jakes Goikoetxea** 18
- MOILA BAZTERRETIK **Garbiñe Manterola** 19
- HERRITARRA **Jone Lete** 25



Mikroskopiortik botikara

Ikusi gabea ikustea lortu zuen Onetsinek tesi doktorala egiteko garaian. Beste bide bat ireki du gaixo kronikoak sendatzeko.

Elkarlana



+

kutxa

+

ADEGI

+



+



+



=

gipuzkoa aurrera

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara, indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea

20810 ORIO

943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Mikel Aranzabal

Erredakzio taldea

Pat Cowie, Miren Etxeberria, Iker Gurrutxaga eta Jabier Zabaleta

Aiako erredakzioa

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Mikel Aranzabal

Festa programaren diseinua

Patxi Uranga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Egoitz Eizagirre, Jakes Goikoetxea eta Zatain

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzzaileak

Ekiñe Miralles eta Goiuri Unanue (Orio) Ainize Sayago (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua

SS-346/90

ISSN

1132-1105

Tirada

3.200 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Hangoak, hamalau!

EGOITZ EIZAGIRRE

1

Euskaraz eta Euskal Herri guztiari eginak genituen zenbat egunkari? Bat eta bakarra zen txiki, baina handi hargatik itxi zuten nork ez dauka garbi?

2

Martxelo, Torreal dai, Uria ta beste datoz merezi duten elkartasun eske, nirea badaukate nahiz ez den hainbeste zuek batu ezker o asko izan gaitezke!

3

Audientzitik pasatzen da, garbi izan hau, ezer egin ez duten dozenaka *pringau*, haien argazkiekin dabilzan beste lau... eta han beti dira intxaurrak hamalau!



KARKARA



Eusko Jaurlaritza

Kultura Sailak

diruz lagundutako

hedabidea

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat

12,00 €

Bi modulu

24,00 €

Hiru modulu

36,00 €

Lau modulu

48,00 €

Sei modulu

72,00 €

Zortzi modulu

96,00 €

Orrialde erdia

120,00 €

Orrialde osoa

204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat

16,00 €

Bi modulu

31,00 €

Hiru modulu

47,00 €

Lau modulu

64,00 €

Sei modulu

95,00 €

Zortzi modulu

127,00 €

Orrialde erdia

174,00 €

Orrialde osoa

306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com

Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK







Gehiengoa gara

Besteek gaztetxea sortzearen aldeko jarrera azaldu bazuten ere, zinegotziekin egindako azken bileran, EAJk ezezkoa eman digu, azkenean.

Orain arte beti gurekin zirela esaten zuten, baina guk bagenekien ezetz, eta gaztetxea sortzeko zentzuzko alternatiba eraginkorra eta berehalakoa aurkeztu dugun momentuan ikusi dugu ardilarruz zebilela otsoa.

Etxeluzea gaztetxe ez izateko aitzakia mordoa jarri dute eta, gainera, Mikel Izquierdo gazterriako teknikari saldua urtebete alferrik galdu dugula aurpegiatzeko gai izan zen. Ja, a zer barregura! Haiek bai gustura urtea irabazi.

Baina gu ere ez gara geldi egon bitartean. Herritarrek gaztetxearen proiektuan sinesten dutela erakutsi dugu, 2009ak gazte mugimendua eta antolamendua indartzeko balio izan digu, bai eta Ezker Abertzalearen, EAren, Ezker Batuaren, Aralarren eta PSOE-EEren babesarekin Udalbatzarrean gehiengo absolutua lortzeko ere.

Hasieran okupatzen saiatu baginen ere, bide diplomatikoa jorratu dugu eta, lau haizeetara zabaltzen den ustezko demokraziak benetan zer baitetarako balio badu,

gure lana ez da alferrikakoa izan, eta lortuko dugu gaztetxea.

Ensalenearekin egin dugu apustu eta behin-behineko gaztetxe izateko proposamena jarri dugu Udaleko mahai gainean, baina gure pazientziak ere mugabatu eta, aurreko batean esan genuen bezala, ez gaude beste urtebete zain egoteko prest.

Sanikolasetarako ere mobilizazioak antolatu ditugu; hasteko, ostiralean, gaztetxearen aldeko kontzentrazioa egingo dugu, 19:00etan, plazan. Zatozte kolore, arraza, jatorri, ideologia, altuera, zabalera, adin... guztietako herritarrak gurekin. Gazteria mila zatitan banatu nahi dute, baina guk bat garela erakutsiko diegu, beste behin.

OKK GAZTE ASANBLADA

Errausketarik ez!

Datorren azaroaren 28an, Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinadorak deituta, manifa egingo da Donostian. *Partehartzeari errespetua, Errausketarik ez! Atez ateko bilketa* lelopean irtengo da Boulevardetik, arratsaldeko bostetan.

Orioko Errausketaren Aurkako Herri Plataformatik eta Herrio natur taldetik mani-

festazioan parte hartzeragonek bidatu nahi zaituztegu.

Urriaren 27ko azken udalbatzan mozio bidez eta gehiengoaren botoekin hondakinak erraustegira eramatearen aurka azaldu zen Orioko Udala. Hori kontuan hartuta, hondakinen kudeaketa ereduaren inguruko eztabaida partehartzaile bat irekitzearen aldeko deia egin diegu udal ordezkariari. Gainera, abenduaren erdi alderako, gai hori lantzeko mahaingurua antolatzen ari gara bi taldeok. Zatoz gurekin.

ERRAUSKETAREN AURKAKO
ORIOKO PLATAFORMA ETA
HERRIO NATUR TALDEA

Emakumeok, autodefentsa

Indarkeria egoerak Euskal Herrian eta mundu osoan benetan arazo larria izaten jarraitzen du. Hedabideetan egunero agertzen diren eraso ugariei eta aurten eraildako 7 emakumeen errealitate gordinari aurre egin behar! Etxe barruko eta bikote harremanetako indarkeria kasuak ez dira kontu pertsonala, arazo sozial larri horren parte dira eta errealitate hori salatu nahi dugu.

Nazkatuta gaude indarkeria kasuak gertaera isolatu

bezala tratatzeaz, gure askatasuna mugatzen duten jarre-
rak egunero jasan beharraz, agintariak dituzten erantzukizun politikoak ez betetzeaz... Neke eta egonezin honen aurrean Euskal Herriko Bilgune Feministak aurtengo azaroaren 25ean zabalduko mezuarekin bat egiten dugu: *Emakumeok autodefentsa!* Ez dugu indarkeriaren gaia biktimaren irudiarekin islatu nahi, ausart eta defendatze-ko gai den emakumearen irudiarekin baizik. Zor zaiguna gure egin nahi dugu, kalean, etxean, ikastetxean nahiz lantokietan lasai ibili nahi dugu, erasotuak izateko beldurgabe. Kolpeei, irairiei, gutxiespenei eta mehatxuei aurre egin, maitate gaituela dioen erasotzaileari planto egin, gure bizi proiektuak askatasunean, menpekotasunetik kanpo garatzen segi. Horretarako, autodefentsan sinesten dugu, gure burua defenditzeko gaitasunean. Hori aurrera eramateko, ordea, emakumeen arteko elkartasuna beharrezkoa da. Ez ahaztu emakume bati egindako erasoak, emakume guztion kontrakoak dela. Eta festak gainean ditugun honetan ere, ez dadila inongo eraso sexistarik gelditu erantzunik gabe!

Erasoei ofentsiba, ekin autodefentsari!

ORIOKO XALTXERAK

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
frontal ordoan
Tfnoa: 943 83 01 89

Lizaso dekorazioa

Kusko Gudari, 48
Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 83 87 15

ITZALA

kartela jokatzen
apropoia
tel. 943 83 12 59

SAGARDOTEGIA

SATXOTA

TXOTX!

SANIKOLASAK

MENU BEREZIA

15€

Bakailao tortilla
Ollaskoa patatekin
Postrea
Sagardoa

Aiako Santio auzoan, 943 83 57 38

OPOSIZIOKO ALDERDI GUZTIEK BAIETZ ESAN BADUTE ERE, EAJ-K EZEZKOA EMAN ZUEN

Esnalenean jarri nahi dute, behin-behinean, gaztetxea

Hainbat tirabiraren ondoren, gaztetxea sortzeko negoziatioek lehen fruitua eman dute, behin-behineko gaztetxea Esnalenean egiten saiatzea erabaki baitute.

OKK-k gaztetxea sortzeko negoziatioa blokeo egoeran zegoela bazioen ere, bat-batean, proposamen berria jarri zuen mahai ganean: Esnal pentsioa izan zeneko etxea erabili horretarako. Udalak beti esan du gaztetxea egitearen aldekoa dela, baina Etxeluzean ezinezkoa omen da, lege arazoak direla eta. Arazo horiek ez dituen aukera eskaini dute gazteek, aldi baterako gaztetxe izateko, Udalarekin behin betiko tokia adostu bitartean.

Azaroaren 16an, astelehengarekin, egin zuten azken bilera: OKK-ko 3 ordezkari; EAJ-ko Jon Redondo eta Noemi Ostolaza; Ezker Abertzalea Udal Taldeko Joseba Goiburua eta Leire Zinkunegi; EA-ko Bixente Lasa; eta Mikel Izquierdo gazteriako teknikaria elkartu ziren.

Bilerara agertu ez ziren Ezker Batua-Aralarreko eta PSOE-EE-ko zinegotziek alde aurretik onartua zuten OKK-ren proposamena, eta Ezker Abertzalea Udal Taldeak eta EA-k bertan berretsi zuten gaztetxea sortzearen aldeko jarrera. EAJ-k, ordea, ezezkoa eman zuen: *Gaztetxeak geurea ez den ildo politiko baten haria jarraituko duela uste dugunez, ez gara gaztetxea egitearen aldekoak, baina, gehiengoak hala nahibadu, ez gara traba izango, esanez defendatu zuten berea. OKK-koek oker daudela esan zien: Orioko gazte guztientzat da gaztetxea eta asanblada bidez erabakiko da bertan zein gai*



220 gazte bildu ziren gaztetxea aldarrikatzeko Gazte Festetako bazkarian. Argazkian, txirigoten unea.

IBAN EGIGUREN

*jorratuko diren. Horretarako, herriko eragileekin eta gazte koadrilekin biltzen ari gara, ahal bezain proiektu osatue-
na aurkezteko herriari. Toki*

publikoa izango den heinean, Udalak noizean behin gaztetxeko martxa ikuskatzeko eskubidea izango duela gogorazten zuten gazteek.

Ni gaztetxearen alde

Luze doa. Orain etxe luzetik etxe altura pasa da gaztetxea; etxe zahar bat, zer eta hotela, alajaina! Gaztetxerako zahar eta zahar-etxerako gazte izanda, helduaroan udalean erabakiak hartu behar ditugunok zuhur jokatu behar dugu, baina konfiantzaz: gazteei aukera emanez, haien ilusioa, indarra, irudimena eta eskuzabaltasuna bideratzeko tokia eta modua eskainiz. Hori zor diegu. Inbidiaz begiratzen diot gazteriaren kemenari, gaztaroa goxatzeko gaztetxeak emango dien aukera izango dutenei. Kultur eskaintza aberatsa eskainiko diote herriari, jarrera zabala erakutsiko dute eta ez dute aukera politiko jakinik bultzatuko. Hori zor dute. Gainera, autogestioaz eta autofinantzazioaz egiten badute, bejondeiela!

IÑAKI ITURAIN | ARALARREKO ZINEGOTZIA

LAUZPABOST URTERAKO

Bai gazte asanbladak eta bai Udalak badakite Esnaleneako gaztetxeak ezin duela betiko izan, inguru horretan etxeak egiteko plan partziala onartuta dagoelako eta, dagoeneko, *Altuna y Uria* enpresa sustatzaileak lurra horretarako erosita dituelako.

Oposizioko taldeak eta OKK hizketan ari dira orain, *Altuna y Uriari* etxea lagatzeko proposamena landu eta ahalik eta azkarren haiekin harremanetan jartzeko.

Altuna y Uria alde agertuko balitz, Esnalenea lauzpabost urterako izango litzateke gaztetxe, ordurako espero baita Dikeko eremuan etxeak egiten hastea. Une hori iristean, gazteek etxea utzi behar-ko lukete, berez, behin betiko gaztetxera.

HERRI BAZKARIKO TXARTELAK ABENDUAREN 6RA ARTE EGONGO DIRA SALGAI

Baserritar edo arrantzale jantziekin Euskal Jaian

Festa batzordekoak gogor ari dira lanean Euskal Jaiari ukitu berezia emateko.

Iazko sanikolasetako Euskal Jaiak harrera ona izan zuen, baina, festetako azken egunean izanda, ez zen nahi adina lagun animatu. Aurten, ordea, astelehenera pasa da, abenduaren 7ra. Euskal giroan oinarritutako egitaraua atondu du festa batzordeak eta baserritar, arrantzale eta taldeen azokarekin, txalapartariekin, sagardo eta txistorra banaketarekin, Egunsenti otxotearen kantujirarekin, herri bazkariarekin, trikitilariarekin... denekin osatutako festa antolatu du.

Hala ere, egun hori jarraian antolatzen den hirugarren urtea da eta festa batzordeak baserritarrez edo arrantzalez jantzita ateratzeko deia egin die herritarrei, beste behin ere, parte hartzen dutenak jaiarekin bat egin dezaten, *bestela, festak egun arruntaren itxura hartzen du; eta ez da hori lortu nahi duguna* adierazi digute festa batzordekoek.

HERRI BAZKARIA

14:00etan izango da herri bazkaria, frontoian, eta plater nagusia babarrunak sakramentu eta guzti izango da. Hasteko, ordea, gindillak jarriko dituzte, oso ondo uztartzen dira-eta babarrunekin.

Jan-edanak 10 euro balioko du eta abenduaren 6ra arte



Herri bazkaria frontoian egingo da aurten.

KARKARA

Gindillek eta babarrunek osatuko dute herri bazkariako menua, sakramentu eta guzti

egongo dira txartelak salgai txosnetan eta tabernetan nahi dituztenentzat.

HERRITARREN LANA

Txosna batzordea inoiz baino zabalagoa da aurten eta Egunkariaren aldeko batzordeak, Erraustegiaren aurkako plataformak, Etxeratek, Harribilek, Ikastolak, OKK-k, Xaltxerek eta Txurumuskik osatzen dute.

Plazako bi txosnetan lanean arituta ere, herri bazkaria antolatzeko eta sagardoa eta txistorra banatzeko denbora hartuko dute, dirua lortzeaz gain, festa herrikoien aldeko apustua egiteko.

LABUR

MAKETAGINTZA

Inazio Sarasua *Más Naviosen*

Más Navios nazioarteko aldizkariako irailako alean Inazio Sarasua oriotararren maketa lanen inguruko erreportajea argitaratu dute, Jesus Mari Lizarragak idatzita. PDFan duzue irakurgai karkara.com web orrian.

TELEBISTA

Aurkezle kastina

Karlos Argiñanoren Bainen ekoiztetxea aurkezle bila dabil sukaldeko saioetarako eta kastina egingo du horretarako. Kastinen grabaketa Errotaetxeko platoetan egingo da.

Ez da beharrezkoa sukaldari profesionala izatea, nahikoa da sukaldean iaioa izatearekin. Informazio gehiagorako 943327882 edo 638843171 telefonoetara deitu eta Josu neren galdera egin.

KULTURA

Saria Benitori

Azaroaren 21ean, larunbatarekin, Benito Lertxundik Agosti Xaho saria jaso zuen Zallan eman zuen kantaldian.

Sari hori Agosti Xaho eta Xiberuko Zohardia elkartearen artean ematen dute eta Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko harremanak sendotzeko lana eskertzea du helburu.

FISIOTERAPIA: Gorkaite Arriagala eta Naiara Wierwonen
NUTRIZIONISTA: Gorkaite Arriagala

sinergia investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

HAIZE & BERRI
taberna-jantetxea-kafetegia

Plater konbinatuak, bekatak, hamburgerak, ruzioak, egunko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Orain berrabertzen. E. 1000 943 03 16 12. Aholku gaituzte gaita

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

AURTENGO DENBORALDIA TXARRA IZAN DELA ETA IA 35.000 EUROKO ZULOA DU OAE-K KUTXAN

Kluba berritu bitartean Ortzaikan izango da OAE

Ohiko batzarrean denboraldiaren eta balantze ekonomikoaren irakurketa egin zuten. Ezohikoan hauteskundeak deitu zituzten eta elkarteko instalazioen lanen berri eman zuten.

Azaroaren 13an egin zen Orio-ko Arraunketa Elkarteko denboraldi bukaerako ohiko batzordea, eta kontu dezentazaldu behar izan zituzten. Hasteko, denboraldiko 15 garaipenen errepasoa egin ondoren, balantze ekonomikoa egin zuten eta 47.000 euroko defizita egin du aurtun elkartek. Ezohiko batzarra egin zuten jarraian eta hauteskundeak deitu zituzten. Bukatzeko, arraunketa eta piraguismo teknifikazio zentroa egin bitartean uretako lanak Ortzaikatik egingo dituztela azaldu zuten.

2009KO BALANTZE TXARRA
Urte osoan, guztira, 15 garaipen lortu badituzte ere, balantze ekonomikoa negatiboa izan da eta OAE-koek denboraldia txarra dela argi dute.

442.379 euroko diru sarre-
ra izan da, baina gastuek 455.783 euroraino jo dute eta, horri, inbertsioetan gastatutako 33.604 euroak gehituta, guztira, 2009an izandako 47.007 euroko galera eman du. 12.245 euro zituen arraun elkartek kutxan, beraz, 34.763



Kultur etxeko areto nagusia lepo bete zen arraun elkarteko batzarrean.

KARKARA

euroko zuloa du gaur egun elkartek. Orain, Udalarekin duten hitzarmeneko 36.000 euroekin bete nahi dute zuloa, baina horrek 2010erako diru gutxiago izatea eragingo du.

ZUZENDARITZA ALDAKETA
Zuzendaritza batzordeak lau urteko zikloa bete du eta hauteskundeak deitu dituzte. Hauxe izango da jarraituko den egutegia: abenduaren 11 arte aurkez daitezke zerrendak eta hauteskunde batzordeak onartu beharko ditu 15erako. Abenduaren 19an

egingo dituzte hauteskundeak, zerrenda bat baino gehiago onartuz gero.

ORTZAIKATIK ERRIORA
Abendua hasieran hasiko da Amenabar eraikuntza enpresa teknifikazio zentroa egiteko lanetan eta 18 hilabetez instalazioetatik kanpo egon beharko dute arraunlariek. Bitartean, lehorreko lanak, gimnasiokoak-eta, kiroldegian ari dira egiten eta, laster, Ortzaikako pabilioira pasako dituzte ontziak, uretako lanak handik egiteko.

Hauteskunde zikloa hasi da eta abenduaren 11 arte aurkeztu daitezke zuzendaritzarako zerrenda berriak

Egunerokoan behar dituztenak bakarrik izango dituzte Ortzaikan eta Xanti Etxeberriak pabilioi bat utzi die Botalekun, beste material guztia han gordetzeko.

tel/fax: 943 89 00 69
Bikotia kalea 4. 28.300 ZARAUZT

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA BAINU ERAKUSKETA
Berriak eta beste produktuak



RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12



Aurreko bi edizioetan jokalaria asko hurbildu zen kiroldegira saskibaloian jokatzera.

KARKARA

ABENDUAREN 4AN JOKATUKO DA, BI ADIN TALDETAN BANATUTA

Sanikolasetako 3x3 saskibaloia txapelketa

Aurreko urteetan izandako arrakasta ikusita, Orioko Herri Ikastolak saskibaloiko 3x3 txapelketa antolatu du hirugarrenez. Dagoeneko zabaldu da izen-emate epea eta azkar ibili beharko da, 24 talderentzat bakarrik izango da-eta lekua.

Orioko Udalaren eta ZASTen-Zarauzko saskibaloia talde-laguntza izan du ikastolak txapelketa antolatzeko. Bi multzotan banatu dute: 14 urte-

tik beherakoek 17:00etan ekin-go diote lehiaketari eta helduenak 18:30ean.

Bi multzoetan talde mistoak egiteko aukera dago, eta gutxienez 3 eta gehienez 5 jokalarik osa dezakete taldea. Izena emateko, 5 euro ordaindu behar dira eta Karela kiroldegian edo www.zast.es weben egin daiteke abenduaren 2a baino lehen.

XAKEA ERE BAI

Xake txapelketa ere izango da aurtun, abenduaren 8an kul-

Karela kiroldegira joanez edo www.zast.es orrian jarri duten atalean eman daiteke izena

tur etxean, 10:30etik aurrera 6 eta 16 urte bitarte dituzten neska-mutileentzat izango da. Izena abenduaren 4rako eman behar da ikastolan.

LABUR

ARETO FUTBOLA Erdi aldean lasai

Lehen itzuliaren erdia baino gehiago jokatu dute dagoeneko Orioko Tabernakekoek.

Azken partida 6-2 galdu zuten arren, sailkapeneko 7.ak dira. 4 partida irabazi, beste hainbeste galdu eta bat berdinduta, 13 puntu dituzte eta 6.etik 11.era arteko multzo lehian daude.

ARRAUNA Denboraldia jarri da martxan

Hasi da dagoenerako 2009/10 denboraldia arraunlariarentzat ere. Euskadiko nazioarteko lehen opena jokatu zen azaroaren 21ean eta 22an Nerbioiko uretan.

Orioko hiru ontzik hartu zuten parte eta jubenil gizonezkoek lortu zuten emaitzarik onena, bigarren sailkatu zirelako Akitaniaren atzetik.

ESKUBALOIA Unanue Iruñan berriz

Mikel Unanue oriotarra Iruñeko Anaitasuna taldera itzuli da Toledoko taldearekin zuen kontratua bukatu eta gero. Txukun dabil Iruñeko taldearekin, sailkapenean 2. dira-eta.

PERTSIANAK
AKO MAZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 33 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

agirresarobe+elizondo arkitektoa
Obra eta proiektuak
obra berrien proiektuak • Informak •
erretornak eta erretornak • obra
direktio • geroa koordinakuntza
borja agirresarobe lopotegi tel.: 635 731 722

aroztegia MIRANDA
Jose M. Lizarola
tarima, eta, latho, eskalera...
behar diren arto lanak
agingo dirikizugu
Udazketa bidet. 1 - 669 42 32 70 - SABAUT

LEIRE ALUSTIZA ETA AINHOA GOZATEGI | ARRAUNLARIAK

“Berriz ere arraunari heltzeko gogoa piztu zaigu”

Ainhoak eta Leirek duela urte dezente utzi zuten arrauna, 1997 inguruan. Ikastolak antolatutako estropadan berriz ekiteko gogoa sartu zitzairen eta nesken trainerua sortzeko proiektuan sartu dira.

Arraun elkartea nesken trainerua osatu nahian omen dabil.

Leire Alustiza: Ikastolak antolatutako estropada zela eta hasi ginen pixkanaka-pixkanaka entrenatzen eta klubera joaten entrenamenduak egitera. Bertan komentatu ziguten buruan zebilkiten ideia.

Ainhoa Gozategi: jubenilek izugarrizko gogoa dute trainerua osatzeko eta haiek animatu gaituzte neurri handi batean. Gu ibiltzen ginen garaian aulki mugikorra besterik ez zen neskentzako, uzte-ar ginela hasi ziren tostako estropadak bateletan emakumeen artean, baina erakustaldiak soilik egiten ziren. Bermeoko Euskadiko Txapelketa bateko erakustaldian hartu genuen parte, pentsa zenbat urte pasa diren: Gorka Puer-tas izan genuen patroiz.

Zein da zuen asmoa?

A.G.: Seriotasun handiarekin hasi gara. Dagoeneko arraun elkarteko prestatzaile Rafa G. de Txabarriekin ari gara lanean.



Kiroldegian entrenatzen dute momentuz Ainhoak eta Leirek

KARKARA

Atzo izan genuen bilera, elkartek deituta, baina bilerara etorri ez direnak ere honen berri izatea garrantzitsua da. KARKARARI esker jakiten duenak ere, arraun egiteko gogoa baldin badu, behintzat, etor dadila lasaiguregana klubera, ateak zabalik izango ditu-eta.

Jubenilek forma hobean dau dela erakutsi zuten ikastolaren estropadan, ezta?

L.A.: Guztia kontatu gero! Korranteak eta, kaleak eta, kurba eta...

Poliki jardun zuten neskek, baina esan beharra dago irabazleak kadeteak direla. Gu tartean geratu ginen eta egin-

Bilerara etorri ez direnak ere, arraun egiteko gogoa badute, ateak zabalik izango dituzte proiektu berrian

dako lanarekin oso gustura.

A.G.: Hor bertan erabaki genuen gutxienez asteen behin-edo ontzia uretaratzea gu bion artean.

Gero etorri zen ideia, eta hasi, hasiko gara; baina guk, familiak izanda, seriotasuna behar dugu; seriotasun hori gabe, zaila egingo zaigu jarraitzea.

L.A.: Gogotsu gaude eta aurrera egin nahi dugu. Herri honek behar du emakumezkoen trainerua, besteak beste, Pasai Donibanek ere ontzia ateratzeko asmoa dauka eta.

Traineruan hasteko gogoz zarete orduan.

A.G.: Bai, irrikitan gaude lehengo garaia berpizteko. Ea gu bezala lehen arraunean ibilitako neskak ere animatzen diren eta gogor egiten dugun lan.

L.A.: Ea guztion artean proiektua aurrera irteten den. Iraganeko grina berpiztu zaigu eta berriz ere arraunari heltzeko gogoz gaude.

zkue
Tf: 943 13 04 38

ARKAITZ
Taberna
Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogilarleko mundialak
ABESLARI KALEA, 4
Tf: 943 83 16 57

LOBETXU JATETXEA
Eusko Gudari, 18 Tf: 943 83 00 07

MIKEL ARANZABAL

Ezker abertzaleak aurkeztu berri duen txostenak argi uzten du zer egin behar den, baina nola egin behar den jakiteko ez du bide garbirik markatzen...

Galderan dator erantzuna. Ezker Abertzalea berregituratzeko eztabaida sortzea du helburu txostenak. Independentziarako bidean pausuak markatuta uzteak ez luke zentzurik izango, ezin baitira ardatzak zeharo definitu eztabaida sortu nahi bada. Orain, irakurri, hausnartu eta denon artean eman behar diogu jarraipena.

Hausnarketa eta autokritika sakonek testuaren zati handiena hartzen dute eta indar-metaketa da hortik ateratzen den ondorio garbiena. Herritar Batasunerako lehen pausoa da Eztabaidarako Txostena?

Txosten horren oinarria urte askotako borrokatik ateratako ondorioen gainean egindako hausnarketa sakona da. Momentu honetan Euskal Herrian ikusten dena da sekulako magma sozial independentista eta ezkertiar handia dagoela, baina, nolabait, artikulatu gabe dagoena. Hori bai, bakoitza bere aldetik doala ematen duen arren, une konkretu batzuetan oso erantzun kontudenteak ematen ditu, esaterako Arnaldo, Diaz eta konpainiaren atxiloteten ondoren emandako erantzun bateratua. Horrek adierazten du mugimendu handia eta potentia dagoela, oraindik bizirik segitzen duena.

Multzo independentista, ezkertiar eta aurrerakoi horrek, gainera, gure eskualdeko gehiengo soziala ordezkatzeko du, bai politikoki, sindikalki... eta artikulatzen ez badugu ez dago modurik independentiziarantz pausorik egiteko.

EAJ planteamentutik kanpo uzten da, zuzenean.

Independentismoaren definizioaz ari bagara nola baita autonomismo eskuin-

darra ordezkatzeko duen EAJ-rekin ezin gara bildu, argi baitago ez dela independentista.

Hego Euskal Herrian hiru sentsibiltate mota bereizi ditzakegu: espainolista edo konstituzioanalista deitzen dutena, autonomista eta, gurea, independentista. Espainiako konstituzioa sentsibiltate autonomista eta independentista kontuan hartu gabe egin zen, horrelaxe joan zen erreferenduma ere, eta horregatik Euskal Herriak ez dauka legimitaterik konstituzioan. Euskal Herriko gatazkari konponbide demokratikoa bilatu nahi bazaio, argi dago hiru sentsibiltateak hartu behar direla kontuan, eta hiruek izan behar dutela tokia elkarrizketan.

EAJk eta PSOEek transberritasitate horretaz hitz egiten dutenean, tranpa egiten dute, independentismoa baztertzeko baitute. Horregatik, indar independentista eta aurrerakoa lortu nahi dugula diogunean, EAJ kanpoan geratzen da, ez baita ez bata ez bestea, baina ez guk esaten dugulako, berek hala aitortzen dutelako baizik. Autonomiarekin konformatzen badira eta eredu ekonomiko neoliberalaren alde egiten badute, bada, oso ondo, zilegi da.

Horrek ez du esan nahi zenbait arlotan ezin denik berekin akordiorik egin, baina estrategia eta taktika berriak egiteko garaia da eta bloke independentista sortzerakoan ezin dugu beraiekin bat egin.

Testutik estrategiaren honako eskema ateratu daiteke: Indar independentisten metaketa, nazio eraikuntza sustatzea, salbuespen egotza atzean utzi eta benetazko marko demokratikoa irekitzea, askapen prozesua eta independentzia. Ezker Abertzaleak bide demokratikoa ren aldeko apustugarria egin du txostenean. Pauso horiek denak emateko, non kokatuko zenuke ETaren desagerpena?

ETA-rekin zerikusirik ez



KARKARA

ANTXON GOMEZ | EAE-KO ZINEGOTZIA

“Prozesu demokratikoa hasteko deia da”

Fase politikoaren eta estrategiaren eztabaidarako txostena argitaratu eman zuen azaroaren 14an Esker Abertzaleak. Agiriaren edukiaz aritu gara Antxon Gomezekin, EAEko idazkari nagusia izan ondoren gaiak badaki-eta.

dugun erakundeok ezin dezakegu ezer esan horretaz, armekin jarraitzea edo uztea ETak erabaki beharrekoa baita. ETA eta Ezker Abertzalearen arteko lotura espainiar estatuak asmatutako aitzakia da gu ile-

galizatzeke.

Txosten honetan argi gertatzen da mugimendu independentistaren ardatza eta nondik norakoa definitzeko Ezker Abertzaleak emandako pauso unilaterala dela, kon-

tuan hartuta une honetan ezarrita dagoen salbuespen egoera. Benetako prozesu demokratiko bat hasteko erakunde guztiei egindako deialdia da. Erakunde horiek izan daitezke instituzioak, sindikatuak, plataforma sozialak, alderdiak... baina ETA bera ere eta orain ikusiko dugu besteak zertarako prest dauden.

Eguno arauak ezagututa, ikusten al duzu instituzioetara heltzeko benetako aukerarik?

Azken hauteskundeetan, EAE-ANV ilegalizatua izanda ere, PNVk baino boto gehiago lortu zituen Gipuzkoan. Hori ANVk bakarrik eta planteatzen dugun indar soberanisten elkarlanarekin gehien go nabarmena izango ginateke. Horrek instituzioetako ateak ireki beharko lizkiguke.

Batzuetan arrainaren memoria dugula dirudi eta komeni zaigunean Ezker Abertzalea Gipuzkoako indar nagusia dela ahanten zaigu.

Azkenean galderak dira: Ezker Abertzaleak egiten duen apustu demokratikoa ikusirik, beti hala izan den arren, eta kontuan hartuta jokoaren arauak estatuak jartzen dituela, zenbat gehiago iraun dezake alderdien legeak? Ilegalizazioak jarraituz gero, zein alderdi demokratiko egongo litzateke Ezker Abertzaleari dagozkion eserlekuak okupatzeko prest? Posible da Lizartzak alkate izatea bozken %2arekin, baina hori eterno mantendu daiteke? Gizartea demokrazia mota hori onartzeko prest dago?

Ezkerreko politikaren ikuspegitik garrantzia handia du Udalerrietan egiten den lanak. Munizipalak direnez hurrengo hauteskundeak, 2011n, zer ondorio izan ditzaieke Aian eta Orion ezker abertzalearen proposamen berriak?

Horrelako planteamentu berritzaile jarritz mahai gainean, koalizioak egiteko garaian, ezin zaie 2007ko emaitzei begiratu. Lana ondo egiten bada, bat eta bat ez bai-

INDAR-METAKETA

“Indar independentista eta aurrerakoia lortu nahi dugula diogunean, EAJ kanpoan geratzen da, ez baita ez bata ez bestea, baina ez guk esaten dugulako, berek hala aitortzen dutelako baizik”

ETA-REN DESAGERPENEA

“ETArekin zerikusirik ez dugun erakundeek ezin dezakegu ezer esan horretaz”

INSTITUZIOETAN IZATEKO AUKERA

“Ezker Abertzaleak egiten duen apustu demokratikoa ikusirik eta kontuan hartuta jokoaren arauak estatuak jartzen dituela, zenbat iraun dezake alderdien legeak?”

AIA ETA ORIO

“Badago jendea oso politizatuta dagoena, baina, agian, hauteskundeetan parte hartzen ez duena. Sektore horri konfiantza eman behar zaio, ilusioa piztu eta parte hartzera animatu”



**FASE POLITIKOAREN ETA
ESTRATEGIAREN ARGIPENA
—EZTABAIDA TXOSTENA—**

www.ezkerabertzalea.info orritik
deskarga daiteke, PDF formatuan.

ta 2 izango; izan daiteke 3 edo 4.

Hitz egiten dugunean magma independentistaz, badago jendea oso politizatuta dagoena; baina, agian, hauteskundeetan parte hartzen ez duena. Sektore horri konfiantza eman behar zaio, ilusioa piztu eta parte hartzera animatu, batez ere gazteriarri, azken 2007ko hauteskundeetako abstentzioa ikusirik. Lortu behar da herritarrek ikustea estrategia serio bat dagoela eta siglen gainetik proiektu eta helburu komun bat dagoela independentziarako bidean.

Azkenean, Aian edo Orion

egin daitekeen eragin gutxi izan dezake nazio politikan, baina eragin hori ere erlatiboa da. Ikusi besterik ez dago Kataluniako herri batean independentziaren aldeko erreferenduma egiteak zenbateko erreperkusioa izan duen.

Zer gerta liteke horrelako iniziatibaren bat, ez Hego Euskal Herriko herri batean, baizik eta askotan, egingo balitz? Orion edo Aian independentziaren aldeko aldaketa gertatzen bada, esaterako, Udalbiltzaren bidez oso pauso handiak eman daitezke.

Nazio eraikuntza, gainera, herrietatik hasi eta bultzatu behar da.

AIAKO BERRI

AUTOBUSA Zerbitzu berezia Orioko sanikolasetan

Aiako Udalak jakinarazi duenez, Landabusek autobus zerbitzu berezia eskainiko du Orioko sanikolasetara jaiek direla-eta.

Zerbitzua, Aia eta Oriotar artean egingo da, Andatza eta Santio Erreka auzotatik igarotzen den errepidetik.

Hilaren 5, 6 eta 7ko gauetan eskainiko dira zerbitzuak eta bi orduetara izango ditu. Igande gauean 00:20etan, 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan izango dira autobusak Oriotik; beste bi egunetan berriz, horiez gain, goizeko 6etan beste bat izango da. Autorik gabe Oriokojaietara joateko modua izango da beraz.

GIZARTE KOOPERAZIOA Aiamalibus proiektua martxan da

Aian bizi den Abdou Sidi-bé maliarrak eta Gabino Gonzalez Txabarri autobus gidari aiarrak besteak beste, Malirako laguntza ematen duten GKE batzuekin elkarlanean ari dira.

Horretaz gain, Abdouk Malirako kamioi zahar bat nahi zuen bere familiak duen arroz ustiaketa sailerako, baina horren ordez, Gabinok emandako autobus zahar batekin itzuliko da Malira, *aiamalibus* izena jarri diotena. Abenduaren 22an 6 aiar, usurbildar bat eta Abdou joango dira Malira.

Botikak eta beharrezko produktuak erosteko dirulaguntza eman nahi duen aiamalibus.blogspot.com webean dauka informazio osatuagoa.

AIAKO LEIHOA

Bertsolaritza

Bertsolaritza barnetik sentitzen dugunontzat Euskal Herriko Txapelketa une zirraragarrian dago. Finala bizkaitarrik gabe gertatzeko zorian zegoenean Iturriagaren berpizkundera gertatu zen Iruñean. Lastima Sotok ez ziola mailari eutsi, polita izango baitzen Nafarroako ordezkari bat ere finalean izatea.

Bertsolaritzak oso nabaria den profesionalizatzeko prozesua eraman du azken urteetan. Garai batean beste era batera bizitzen zen bertsoa. Aia inguru hauetan, jende arruntak, gehiengo batek, barnean zeraman, bizi egiten zuen bertsoa. Lagunartean ausartu egiten zen kantatze-
ra, ez zuen hainbeste axola bertsoa hobea edo txarragoa zen, ondo pasatzea zen kon-

tua. Bertso asko dira *txarrak* zirelako oso ezagunak egin zirenak.

Aiar mordo bat ba omen zen Nafarroako Plazaola trenbidea egiten ibilia. Han, hernaniar batek kintzena jasotzen zuen bakoitzean, *bost duro zenek bertso txarragoa* bota esaten omen zuen. Aiarretako batek apustua onartu egin omen zion, baina pitxar bat ardo jokatzeke.

Hernaniarrak:
*Aurten urte ona da
artoak usteldu
Aranoko neskatxak
ezkontzea amets
Amezketako ardiak
esnea galanki
hutsa baino hobe dituk
hoge mila duro.*

Aiarrak, Antonio Josek:
*Bejondezdakiozula
txirula Antonio
Orbelaungo atarian*

**Garai batean
Aia inguruan,
jende arruntak,
gehiengo batek,
barnean zeraman,
bizi egiten zuen
bertsoa**

**Ez zen oso
galbahe estuan
neurtzen bertsoa
eta oso ondo
pasatzen zuten
bertsolaririk
ekarri gabe**

*daukazu trillua
orain Zarautz aldera
hasi omen zera
hemendikan aurrera
hobeto kantatu.*

Hirurogeiko hamarkadan, artean bizirik zegoen ohitura polit bat bazen Iturriozko jailetan. Oilasko jateko egunean, bazkalondoan puntutan egiten zen. Batek jarri eta txandatan erantzunez segi behar izaten zen. Puntua galtzen zuenak pezeta bat bota behar zuen. Jai giroan egiten zen ariketa eta biltzen zen diruarekin denentzat edaria ateratzen zen. Ez zen oso galbahe estuan neurtzen bertsoa, garrantzia, errimek ematen zitzaienta jendeak oso ondo pasatzen zuen kanpotik bertsolaririk ekarri gabe.

ZATAIN

TXOKOAK ETA JENDEA



Eskolako lanak errazteko

La Caixak 900 euroko diru dohaintza egin dio Lardizabal eskolari. Diru horri esker, eskolak INIKA software espezializatua erosiko du eskolako agiriaren kudeaketan lagunduko duena. *Urte batzuk badira aplikazio hori ezagutzen genuela, baina hura erostea proposatu ere ezin genuen egin, guretzat inbertsio handiegia zelako, esan digute zuzendaritzatik.*

Xabier Gaiton, Aitor Hoyos *La Caixak* Orion duen bulegoko zuzendaria eta Belen Zabala ageri dira eskola parean.

*Gai benetan
konplexua ahal
zuen modu
sinpleenean
kontatu digu
Onetsine
Arrizabalagak.
28 urte ditu eta
doktore da udaz
geroztik.
Tesiak hitz egiteaz
gain, bere lanak
eguneroko bizitzan
nolako eragina
duen kontatu digu
biokimikari
oriotarrak.*

IKER GURRUTXAGA

Zer ikasi duzu doktore izatea iristeko?

Selektibitatea egin eta gero, 1999an, Irlandara joan nintzen ingelesa ikastera. Banekien zientzietan ezinbestekoa izango zela ingelesa ondo menderatzea eta horrexegatik joan nintzen hara. Sei hilabete eman nituen hizkuntza ikasten, eta biokimika eta immunologia Irlandan bertan ikasteko erabakia hartu nuen. Genetika ikasteko asmoarekin joan nintzen, baina, han nintzela, biokimika eta immunologia uztartzen zituen adarra sortu zen, eta huraxe aukeratu nuen.

2003tik Dublineko Trinity Collegen biokimika eta immunologian lizentziaduna izan arren, hemen biokimikan lizentziadunarena da dudak titulu homologatua. Aurten doktoretza bukatu dut.

Zer da biokimika?

Bizidun guztiok ditugun molekula kimikoak aztertzen dituen zientzia da. Izaki bizidun guztien zelulan, barruan nahiz kanpoan, dauden molekula kimikoak dira.

Neuronek edo bihotzak,



KARKARA

ONETSINE ARRIZABALAGA | IMMUNOLOGIAN ESPEZIALIZATUTAKO BIOKIMIKOA

“Ikertzen ari
naizenak eragina
izatea espero dut”

adibidez, sodio eta kloro ioien kontzentrazio aldaketak erabiltzen dituzte seinaleak bidali eta funtzionatu ahal izateko...

Horretaz gain, zelulen osagarriak –proteinak, ARNa, ADN, gantzak eta karbohidratoak– sortu eta adierazteko seinalizazio bide pila bat daude. Ni zelula mota berezi baten, T linfozitoen hazkundea gertatzeko bidezidorra ikertzen eta aztertzen aritu naiz.

Nola jorratu duzu bide hori?

Madril-en hasi nintzen doktoretza egiten 2004an, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Severo Ochoa biologia molekularreko zentroan, aldi berean CSICeko parte dena. Baina, urte eta erdi egin eta gero, bertako zuzendariak AEBetara joatea erabaki zuten eta ni urrutitik ikasten utzi nahi ninduten. Euskal Herriaraitzatzeko aukera ikusi nuen eta beka lekuz aldatzeko modua nuenez, CIC-bioGUNEra etorri nintzen 2007an, Bizkaiko Parke Teknologikora, Deriora. Beste bi urte eta erdi egin ondoren, doktore tesia defendatzea lortu dut.

Gaur egun, doktore naiz EHUKo genetikako sailean. Orain, tesitikatertako emaitzekin artikuluren bat publikatu nahian nabil. Ikerlarien curriculum argitalpenekin betetzen da. Baina oso zaila da taxuzko zerbait publikatzeari.

Ikerlariak publikatzeko zailtasunak ditu, beraz.

Gauza askoren baitan dago hori. Nik orain arte egindakoan ez da erraza publikatzeari, oinarritzko ikerkuntzan jardun dut eta aurkitutakoa moduetan baieztatu eta seinalizazioen bidezidorretako maila guztiak erakutsi beharra daude aldizkari onenetan publikatu aurretik. Ikerketa aplikatuan jarduten dutenak, medikuntzarekin zuzenago lotutako ikerkuntzetan, eragin handiagoa dutenez, errazago publikatzen dituzte artikulua. Gainera, publikazioen garrantzia baloratzeko modua

ere ez zait iruditzen egokiena, baina hortaz luze jardun genezake.


Nik, behintzat, emaitza politak lortu ditut eta horrekin gustura nago. Talde gaztea gara, hasi berriak. 5 urte dira bioGUNE sortu zela eta talde txikia izanik, lehen urtetan ez publikatzea normala da. Taldeak artikulua bakarrik publikatu du sortu zenetik eta justu egin zen lan horretan nik ez nuen parte hartu. Dena den, 2010erako zerbait argitaratzea espero dut, nahiz eta iada idazten jardun, gero aldizkariak begitatzailaiek esperimendu gehiago egitea eskatu baitezakete.

Azalduiguzu ez jakinori zure tesiaren nondik norakoa.

Gaztelaraz defendatzea erabaki nuen, hizkuntza zientifikoa gehiago ezagutze aldera eta epai mahaia aukeratzeko euskeraz defendatzean izan zitzakeen murriztasuengatik. Izena bera ere oso konplikatu da honi buruz ezer ez dakienarentzat, baina gutxi edo gehiago zer den esplikatu dut, nahiz eta agian entziklopediaren bat behar hobeto ulertzeko.

Linfotoen ugaritzea edo hazkundea da oinarria. B eta T motako globulo zuria dau eta T motako zelulak aztertu ditut. T linfotoen ugaritzea emateko, aurretik aktibatu egin behar dira, gorputzari arrotzak diren antigenoak erakutsita. Ondoren, zelula horien hazkunde faktorea den IL-2 zitokina sekretatzen da, eta horrek seinalizazio bide berriak sortzen ditu aktibatutako zeluletan.

Horren barruan nire lana Rho familiako GTPasa-k izeneko proteinek izan zezaketen eragina aztertzea izan da. Etengailu molekularrak dira horiek eta zelularen hainbat funtziotan eragiten dutelako dira garrantzitsuak. Zelularen egitura mantentzeko beharrezkoa den aktinazko zitoeskeletoa berregituratzeko funtzioan aurkitu ziren 1992an, baina, horrez gain, hainbat funtzio betetzen dituzte gorputzeko zeluletan.




T linfotoen aktibazioan ezaguna da GTPasa hauen eragina, eta nik ugaritzean ere eragina dutela ikusi dut. Aurretik ikusi ez den lotura bat aurkitu dut familia horretako proteinak eta zelularen glukogenoaren metabolismoa kontrolatzen duen proteina- ren artean. Gainera, lotura

hori zelulen hazkunderako beharrezkoa dela ere ikusi dut.

Hori ulertzera iristeko, zein da erabiltzen duzun metodoa?

Zaila da zerbait ikusi gabe, existitzen dela sinistea. Fluoreszentzia erabiltzen da asko



ARGAZKIA: CIC-BIOGUNE

horretarako, baina nik ez dut erabili horrelakorik. Giza genomasekuentziatu zenetik, gizakiaren proteina guztien sekuentzia jakina da. Horrela, interesa duzun proteinak klonatu daitezke, zuk nahi duzun adierazpen bektorera kopiatu ditzakezu harekin jolasteko, adieraziz eta isila-

raziz edo kenduz. Klonazioetarako bakterioen entzimak erabiltzen dira ADNaz gain.

Proteina horiek adierazteko ugaztunen zelulak edo bakterioak erabili ditut nik. Zelula barnean lan egitean *in vivo* esperimentuak direla esaten da, bakterioetan adierazitako proteinekin lan egite-

an *in vitro* izendatzen dira.

Proteina horiek ikusi ahal izateko, zeluletatik erauzitako laginak tamainaren arabera banatzen dira korrante bidez akrilamidazko geletan. Gero, tintzio bidez edo anti-gorputzak erabiliz argia ematen duten erreazkioen bidez ikusi daitezke.

Biologia molekularreko eguneroko teknikak dira horiek guztiak, baina badira beste hainbat, hala nola: geneen adierazpena neurtzeko, isilarazteko, kokapena ikusteko erabiltzen direnak, eta abar, bai gizakitik eratorritako zelulatan edota bestelako organismotan.

LIZENTZIATURA

“Genetika ikastera joan nintzen, baina han nintzela biokimika eta immunologia uztartzen ziren adarra sortu zen eta huraxe aukeratu nuen”

BIOKIMIKA

“Bizidunok ditugun molekula kimikoak aztertzen dituen zientzia da. Izaki bizidun guztien zelulan, barruan nahiz kanpoan, dauden molekula kimikoak dira. Ni zelula mota berezi bat ikertzen eta aztertzen aritu naiz”

LANA

“Ikerkuntzan zure aisialdia ere lanarekin erlazionatzen duzu askotan. Denbora aurreztearren egunak luze joaten dira. Egunero-egunero goizeko 9etatik iluntzeko 7ak aldera arte laborategian ematen dut”

IKERKETAK

“Diabetesa dutenentzat eta sistema immunearen minbizi mota ezberdinak dituztenentzat tratamenduak sortu ahal izateko balio dezake nire ikerkuntzak”

ENPRESEN JARDUERA

“Afrikako amak titia ematea uztearen ondorioz esne gabe geratzean, esne-hautsa erosten hasi behar izan zuten. Orain, edateko txarra den urarekin egindako esneagatik milioika ume hiltzen da urtero. Injustizia galanta, pertsonekin jolasean ibiltzen diren moralik gabeko jendearena”

Halako prozesu bat egiteko, zenbat denbora behar da?

Halako teknikak nahikoa estandarrak dira, badaude ongi esplikatutako protokoloak. Suerte pixka bat edukiz gero, klonazioa egiteko aste-bete behar duzu, beste aste-bete proteina bakterioetan adierazten eta isolatzen. Bi aste, beraz, dena ongi joanda, baina mila faktorek eraginda, bi astetan egin zitekeena egiteko hilabeteak behar dituzu. Badakigu teoriatik praktikara dagoen aldea. Gero badaude bestelako teknika bereziagoak, zure zelula motara edo sistemara egokitu eta hobetu beharrekoak.

Lortu arte, buruari buelta asko eta asko ematen dizkiozu. Irakurri ere egin behar da, artikuluetan begiratu beste jendeak nola egiten duen, foroetan ikusi...

Ikerkuntzan zure aisialdia ere lanarekin erlazionatzen duzu askotan. Denbora aurreztearren, egunak luze joaten dira. Egunero-egunero goizeko 9etatik iluntzeko 7ak aldera arte laborategian ematen dut. Hala ere egun gogorragoak izaten dira, tarteak, metodologiak hala eskatuta.

Oso sakrifikatua da, baina lortzen diren emaitzek izugarritzko poza eragiten dute. *¡No, hau ikusten ni izan naiz lehena!* edo hilabeteen egingdako lanaren emaitza positiboa lortzen denean... izugarritzko festa antolatzeko modukoa izaten da.

Hemen nola ikusten duzu ikerlariaren egoera?

Ikerkuntza eta ikerlarien lana gero eta hobeto hartuta eta ordainduta dago. Gainera, Euskal Herrian teknologia eta ikerkuntzara bideratutako enpresa asko zabaltzen ari dira azken hamarkadan. Hemen geratuz gero aurrera egin ahal izango nuke. Baina curriculumean kanpoan egon izana kontuan hartzen dute, batik bat, beste heldutasuna ematen baituzu, nahiz eta hemen egin zenezakeen gauza bera egin.

Irlandan, laborategian lan



gutxi egin nuen. Kanpoan bi urte-edo eman behar dira curriculumak ongi betetzeko: asko ikasi eta publikazioak ateratzea da helburua.

Tesiko laborategiko lana bukatu eta etxera joan nintzenean hemen, European, geratu nahi nuen, familia, lagunak, herria... Tesia defendatu nuenerako, banekien urrutiago joango nintzela. AEBetan diru asko dago ikerkuntzarako, nahiz eta argitalpenik izan ez, baten batek hartu zaitzake bere laborategian. Europako leku gehiene-

tarako, aldiz, aurretik finantziazioa lortu behar da, eta horretarako argitalpenak edukitzea ezinbestekoa suertatzen da.




Beldur naiz han ibiltzeari gustua hartu eta ez itzultzea, etxera ez bueltatzea. Bostonen eta New Yorken ari naiz begiratzen gehienbat eta di-da mugitu behar da 2010 urtearen barruan lana aurkitu ahal izateko.

Etaz dazuk egin nahi duzuna zehazki?

Ni ikertzen ari naizenak bi

esparru nagusitan izan dezaake eragina, eta izatea espero dut. Diabetesa dutenentzat eta sistema immunearen hainbat minbizi mota dituztenentzat sendabideak aurkitzeko, tratamenduak sortu ahal izateko, balio dezake nire ikerkuntzak.

Esanda bezala, guk egiten dugun gauza asko eta asko medikuntzara bideratuta dade batez ere. Nire lana zelula bidezko sendabide berriak izango direnetan, birsortze terapietan, zentratu nahiko nuke.



ARGAZKIAK: CIC-BIOGUNE

AH1N1 edo A gripea delakotari buruz zerbait esateko?

Bada, egia esan, gure inguruan ez da horrelakorik ikertzen. Hori ospitaleetako edo botikagintzako laborategietan egiten den zerbait da eta gu ez gara sartu.

Iruzur handiak egiten al dituzte farmazia enpresek?

Bai. Eta farmazeutikak ez diren enpresek ere bai. Elikagaiak saltzen dituzten konpainiak, esaterako, Afrikako herrialde batzuetara esnehausa eta haurrentzako jana-

ri prestatuak bidali zituen opari, titia ematea baztertzeraz animatuz. Bertako amek, titia emateari uztearen ondorioz esne gabe geratzean, esnehausa erosten hasi behar izan zuten. Orain, edateko ur txarrarekin egindako esneagatik milioika ume hiltzen da urtero.

Baina ez da bakarra: beste enpresa batek –eta gaur egun beste hainbatek– saltzen duen esnezko edariak, *L. casei* immunitas duela esaten du. *Lactobacillus casei* gure hesteetan berez daukagun

**Bi mila ta bederatzi
bukatzen doktore tesi
horrexegatik nire esker ona
nahi det adierazi!
Nondik hasi, lehendabizi
Ana eta Jose Luisi
bidai honetan laguntzeagatik
esker mila, *merci*!**

**Proteomika laboan
GTPasen arrastoan
Miriam, Natalia, Laura ta Lore
nituen alboan!
Beste bi talde ondoan,
sartu gintuzten giroan,
bost tesi eta lau umetxoren
ekoizpenekoan!**

**Nola utzi aipatzeke,
Oi ene Oriyo Maite!
Familia, lagun koadrila
ta Herrioko kide(k).
Saltsa guztietan parte,
nahiz azkenaldin aparte,
lasai, banator, Antolakutxa...
GORA GOIKOKALE!**

ONETSINE ARRIZABALAGA

bakterioa da, esnea hartzen duena, beraz jogurt normalek ere badaramatena. Beste adibideak aurpegiko edo zelulitiaren aurkako kremak dira, beste hainbaten artean. Nik ez dut esaten iragartzen dituzten produktuek ez dutela eraginik, baizik eta saltzeko interesatzen zaiena besterik ez dutela esaten.

Kirolean ere gertatzen da. Kasu famatuaren artean, iaz edo txirrindularitzan 3. belau-naldiko EPOarekin gertatu zena da. Medikuek batzuei saldu zitzaizkien produktuak giza

EPOaren kalkoa den EPO sintetikoa zen, gorputzak sortzen duenetik ezberdindu ezina zena.

Kirolariak EPO berrira ohi-tuzirenean, bigarren salmenta etorri zen: medikuek ez zieten egia osoa esan, EPO sintetikoak gizakiaren etik ezberdintzen zuen etiketa zeukan eta dopinaren aurkako erakundeari saldu zioten hori ezagutzeko modua.

Bidegabekeria galanta, pertsonekin jolasean ibiltzen diren moralik gabeko jendearena.

ADARRETATIK HELDUTA

Egunkaria libre!

Denboran urrun, oso urrun, geratzen da *Euskaldunon Egunkaria*ren itxiera. Gogoan, aldiz, gertu. Iltzatua, zizelkatua. Hil arte eraman behar-ko dugun tatuaje baten moduan.

Sei urte eta bederatzi hilabete pasa dira jada *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik. Sei urte eta bederatzi hilabete, ateko txirrinak jai-kiarazi eta koinatak surrealistak zirudien albisteak zapla bota zidanetik.

Eta sei urte eta bederatzi hilabete beranduago amesgaiztoa dirudiena, oraindik bizirik dago. Bai, egia da *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta lau hilabetera *Berria* kalera-tu zela, paradoxak paradoxa, Egunkaria bera baino indartsuago. Bai, egia da orduan atxilotutako ia guztiak kalean daudela. Baina *Euskaldunon Egunkaria*ren aurka-ko bi sumarioek -nagusiak eta ekonomikoak- aurrera darraite.

Sumario nagusiaren epai-keta egitear dago. Aurrena, azarorako iragarri zuten. Orain, badirudi abenduan egingo dutela. Bost lagun daude auzipetuta: Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uriá, Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga eta Txema Auzmendi. Erakunde armatuko kide izatea leporatzen diete.

Baina sei urte eta bederatzi hilabete geroago agerian geratu da akusazioak ez duela, ez hankarik, ez bururik. Fiskalak berak onartu du ez



JAKES GOIKOETXEA
KAZETARIA

Guardia Zibilak ezin zuen ulertu -edo ez zuen ulertu nahi- Egunkaria herritarrek musu-truk emandako laguntzari esker sortu zela: ba orain ere laguntza eske gatoz. Auzipetuek merezi dute eta behar dute

zegoela *Euskaldunon Egunkaria* ixteko arrazoirik. *Egunkaria* ETaren helburuak betetzeko tresna izan dela islatzen duen agiri bakar bat ez da

atzeman. Ez da nire aipua. Ezta defentsako abokatarrena ere. Fiskalarena baizik. Kasua behin betiko ixteko eskatu du, ez egiteko epaiketarik; baina ez diote kasurik egin.

Zein da, beraz, kasuarekin jarraitzeko helduleku bakarra? *Asociación de Víctimas del Terrorismo*ren eta *Dignidad y Justicia*ren akusazioa, herri akusazioa. Hau da, abertzaletasunarekin lotura txikiena ere duen gai oro epaitegietara eramaten edo debekatzen ahalegin-tzen diren bi talde.

Norbaitek oraindik zalan-tzak baldin bazituen, sei urte eta bederatzi hilabete beranduago agerian geratu da *Euskaldunon Egunkaria* arrazoi politikoengatik itxi zutela. Eta euskarazko egunkaria-ren sortzaileak zigortzen badituzte, arrazoi horiengatik zigortuko dituztela. Zeren, inork imajinatzen al du egunkari bat itxi, bultzatzaileak atxilotu eta torturatu, eta ia zazpi urte beranduago epaitegi batek horretarako arrazoirik ez zegoela esatea? Nik ez, hala izatea nahi dudana arren.

Auzipetuek kontatzen dute Guardia Zibilak ezin zuela ulertu -edo ez zuela ulertu nahi- *Euskaldunon Egunkaria* herritarrek musu-truk emandako laguntzari esker sortu zela. Ba orain ere laguntza eske gatoz. Auzipetuek merezi dute. Auzipetuek behar dute. Gu guztiok ere bai.

NIRE HONETAN

Hobeto gaztetxean

Elizatik ahal denik eta aparteena bizitzea erabaki dugunok harridura beti berriaz begiratzen diogu haren gainbeherari. Gure ume denboran izugarria zen elizaren presentzia eta indarra euskal herrietan; maindire beltz batek bezala estaltzen zituen herriarren bizitza sozialeko alor guztiak. Maindire hori, orde, erabat saretu da azken berrogei urte honetan, eta ezin esan horrek penatzen nauenik —argi asko sartzen da zuloetatik—, baina harrigarria zait aldaketaren abiadura.

Orain gotzain berria izendatu du Aita Santuak Gipuzkoan, Jose Ignacio Munilla, eta nik —gure garaiko seme naizenez eta, gaurko gazteei ez bezala, gai hauei buruzko interes pixka bat geratzen zaidanez— haren artikulua batzuk irakurri ditut interneten. Nire adin bertsua duen gotzainaren iritziak denboraren makinan auskalo noizko iragan ilunetik etorritako batenak iruditu zaizkit: homosexualitate sendatu beharreko gaixotasun neurotikoa dela dio, esate baterako.

Eta gero batzuk harrituko dira gure herriko gazteek nahiago dutelako, eliza zaharra baino, gaztetxe berria. Hobeto daude, bai, gaztetxean!

JABIER ZABALETA

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Dorromoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA
FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

MOILA BAZTERRETIK

Argi gutxi euskararen bidean



GARBIÑE MATEROLA

Etxean argindarra jarri nahi eta Iberdrolari deitu nion. Orduan deskubritu nuen alta euskaraz lortu nahi duenak bere buruaren botilero izan behar duela. Telefonoko zenbakiak zapaltzean *Animo Irujo!* esan behar

dio batek bere buruari. Telefono atzean dioxozko kantutu txotxoloa entzun eta *Hik egin dezaken, neska!* Ikusi bestela niri gertaturikoa:

Iberdrola: *Iberdrola dígame, le asiste XXX*

Garbiñe: *Arratsalde on, euskaraz dakien norbaitekin hitz egin al dezaket?*

Iberdrola: piribiribi ribi ribi piribiribi...

Kanta makarrosoa erantzun bakartzat jaso eta hoge minutu luzez zain egon ondoren eskegi egin nuen. Arnasa sakon hartu, bota eta bigarren deiarekin jarraitu nuen. Beste hoge minutu alfer-alferrik. Hirugarren saiakera ere berdintsua izan zen, tamalez.

Hala ere, pazientzia armaturiketorri nintzen lanetik egun hartan eta laugarren dei bat ere egin nuen. Eta

horrenbesteko sufrikarioaren ondoren: euskaraz erantzun zidaten! Tantoa irabazi nuenaren zoramenaz esplikatu nion behar nuen. Iberdrolakoak dejada polit batekin erantzun zidan baina. Mutiltxo hark ez omen zituen altak bideratzen, lasaiegoteko, hala ere, ziztu bizian jarriko ninduela beste sailekoekin.

Eta ezetz asmatu? Kasualitatea, noski, baina sail horretan euskaraz zekiena pixa egitera edo auskalo zertara alde egina zen. Inor ez omen zegoen euskaraz zekienik momentu hartan. Bi aukera paregabeak eskaini zizkidan orduan: tramitea gaztelaniaz egitea edo berriz ere odisea hasieratik hastea. Zer egin?

Egun horretan bi zulo hasi ziren nire baitan: ultzera bat urdailean eta dezenteko zuloa

**Bi aukera
paregabeak
eskaini zizkidan:
tramitea
gaztelaniaz egitea
ala berriz ere
odisea hasieratik
hastea**

**Egun horretan bi
zulo egin
zitzaizkidan**

poltsikoan, telefono faktura ederra tarteko.

Eta bitartean argi gutxi euskararen bidean. Mundura ez ginen, euskaraz bizitzeko jai, nonbait.

ZAPATA KONPONKETAK

Lanbideak: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larazketak: 09:00 - 13:00
Herriko enpresa, Orio

edutologia
ANTILLA
jaleak

Musart Kalea, 2 - TEL. 943 83 21 23

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

URAITZ
Larintologia
Herriko enpresa

Enkaria, 3 - Tel. 943 83 18 97

Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 605 732 913
Faxa: 943 020 213
ventas@sagasti.euskaia.net
Bizkaia kalea, 20-1 B
20800 Zarautz

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Abenda/Industria/Aldeak
943 83 08 45 / 618 60 25 05
ZARAUTZ

Portu ERRETEGIA

Santa Erreka Aldea, 216
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

*brakile, kasko, oinak,
nirako erretik, erretik marea*

ASADOR XIXARIO

Paseo Guterria Kalea, 2
Tel. 943 830019 - ORIO

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

Goizeko
KAFETEGIA

☎ 943 83 28 55

Aila Lertxundi, 33 beheko ORIO
Autobus parada ondoan

Faroko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutzizak

Eusebio Gurbert, 5 Tel. 943 24 07 24 Orrio

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orrio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

islada
BESOLING ZORROA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Bakaren kalea, 2 beheko Orrio 20810
Tel. 943 431 856
e-mail: isladaorrio8@hotmail.com

ATC **TORREALDAY**
aholkularitza

Agentea: Olariaga

Berezitasunak:
✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
✓ Aseguru artekaritza.
✓ Finken administrazioa.

Bazokide 4, beheko. Tel. 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 93 www.elcortezalde.com e-mail: olariaga@olariaga.com

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiaroko zerbitzua
* Belatorio gelak
* Koroak, eskalak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Buz: 943 89 49 42
e-mail: harnepil@harnepil.net

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

Kinkiladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

Gabon
TABERNA

plater kreolak apintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

kutxa

PATXI OLIDEN

Hamengo haragla.
Eheko produktuak: tripa, odolki,
boskorrak, txeritza, krakotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

AMILIBIA
ENTZIO LAK, S. L.

kroi partuetan proiektu
eta instalazioak

goi mailako kisiakarako
arrazun-entziak

Olaskoagacgia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

Igeldora oinez

KARKARAN kontatu izan ditugu garai batean Oriotik Donostiara oinez joaten zireneko pasadizoak eta horietako bat da hau, argazki itxuran.

Fotografian ikus daitezken neska gazte horiek, eskongabetan, Kontxako estropada ikustera joan ziren, 17 eta 18 urterekin.

Estropada Igeldotik ikusi zutela nabari da, atzean Urgulleko muturra ikusten baita hesi gainetik eta Santa Klara uhartea tartetik. Hesia bera ere Igeldoko bereizgarri da.

Kamiseta horirik ez, baina igandea izanik eta Donostiara joanda: apain-apain eginda.

Argazkian: atzean, Maria Goikoetxea, Ramonita Lizarralde eta Felisa Urkizu; eta aurrean, Rafaela Genoba eta Antonita Lizaso.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
ROSA GIMENO

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA



**Automóviles
ZARAUZ**

CITROËN ZETITZU OREZ ALA

Argazki zahar batzuk
eta argazkiak
59.601

ZARAUZ, Tel. 943 13 13 50

**Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAN**

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Igo zaitetz haize berrietara!

Galeria I

943890416-677149934
galeria1orio@hotmail.com

KRITIKA



Gitarra xumearentzat lan zail eta ederrak jasotzen dira diskoan.

KARKARA

Italiatik Euskal Herrira Kataluniatik barrena

Ez du hutsik egingo Juan Rekartek Durangon. Hantxe jarriko dituen diskoetako bat hartu diogu txoko honetara ekartzeko zuentzat.

Oñatiko Kortabarria familiak zituen gitarrarako eskuz idatzitako partitura batzuk dira diskoaren abiapuntu. Eskuizkribu horien artean, XIX. mendean, Ramon eta Miquel Carnicer musikagile katalanen hainbat pieza daude, gitarrarako moldatuz Belliniren eta Rossiniren opera lan ezagunak. Partitura zailak dira, izan ere,

korapilatsua behar du, nahitaez, orkestra osoak eta kantariak egin beharreko lana instrumentu bakarrera ekartzea eta ongi moldatzea. Carnicer anaiei lana goraipatzekoa da, oso musika gustagarria eta gertukoa lortzen dutelako italiar konpositore handien lanak gitarrarako egokitzerakoan.

Horiek aukeratu ditu Eduardo Baranzano gitarra jotzaileak grabazioa egiteko. Donostiako Kontserbatorioan irakaslea da Baranzano, eta maisua da gitarrarekin. Gitarraren soinu garbia

eskaintzen digu Baranzanok eta nortasun handiarekin jotzen ditu pasarte zailenak, goxo eta espresibo agertzen zaigu, orde, tarte lasaietan.

Baditu jarraitzaileak gurean gitarrak, tresna xumea izanik, erraza delako bat izan eta jotzen hastea, gehiago ikasi nahi izatea... atsegina egingo zaie halako ikasleei diskoak.

Artadiko San Migelen elizan egin ziren grabazio lanak eta emaitza ederra da. Mimos gauzatutako lana, Euskal Herrian egina.

ANA GONZALEZ DE TXABARRI

IKASLEAK IDAZLE



IÑIGO EXPOSITO |

DBH 4KO IKASLEA

Kosta Tailerra

Orain dela aste batzuk hasi ziren Kosta Tailerra berritzen, baina orain non entsaitu behar dute bertan jarduten zuten musika talde, dantzari eta korukoek?

Nire ustetan, Udalak eskaini beharko luke beste lekuren bat Kosta Tailerra berritzen duten bitartean, baina lokal hori eskaini al diete?

Ez, bai dantzari eta bai musika taldeek berek bilatu dute bitarte horretan entsaiatzeko lokala. Lokala ez diete bilatu, baina beste gauza askotarako mesedeak eskatu bai Udalak. Hori normala ote? Komeni zaienean mesedeak eskatu, baina gero ez diete eskertzen entsaiatzeko leku bat utzita hilabete batzuetarako?

Nire iritziz, nahiko lotsagarria da eta uste dut ez dela ezer kostatzen entsaiatzeko lokal bat uztea.

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeka asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

"JUAN LARRAZPU" ERAKUNTZAK, S.L.
(Jon Arruti)

Basenietako igelberritze eta agurmo estekidunetan aditua

Exoen berrikuntzak:

- Irizadak
- Irizadurak
- Irizadurak
- Irizadurak

Tel. 945 718 946 (Jon Arruti) Estropelari, 30-38 Oriu

KOLON TXIKI
sartategia
jateak

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

LORETxu JATEtxea

Eunko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

INKESTA

?

OKK eta Udala ados daude, lauzpabost urterako, gaztetxea Esnal pentsioa zegoeneko etxean sortzeko ahalegina egitearekin.

ADOS AL ZAUDE BEHIN-BEHINEKO GAZTETXEA ESNALENEAN EGITEAREKIN?

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emaitza urtarrilaren 8an argitaratuko dugu, 271. Karkaran.

Jaiak noiz hasi galderak 122 erantzun jaso ditu: %62,30 sanikolasak abenduaren 4an hastearen alde dago, %16,39 kontra eta %21,31 ari bost axola zaio.

OSPAKIZUNA



Argentinako euskaldunak

Begi bistan duzuen erretratua Mar de Platatik heldu zaigu. Beti beltzez doan hori Tito da, Orioko kaleetan ikusiko zenuten noizbait, iaz jaioterrira itzuli bazen ere.

Azaroaren 18an aita izan zen bigarrenenez, 3 kilo eta erdiko morroskoa izan baitu. Emazteak Valentino deitu nahi bazion ere, Titok Aitor jarri nahi eta, azkenean, Valentino Aitortxu izango da; hala dio berak, behintzat.

Zorionak Titori eta familia guztiari. Ea laster elkar ikusteko aukera dugun berriz, han edo hemen.

ZORIONAK!



Benito Lertxundiri

21ean sari bat jaso zuen Benitok eta iraganean ere asko ditu jasoak, aurrerantzean egiten jarraituko duen bezala.

Bere abestiak imnoak dira euskaldunontzat; denok abestu ditugu, denok sentitu dugu zerbait berezia... Edonora joanda ere, nondarrak garen esatean *Benitoren herrikoak?* entzun behar izaten dugu, Euskal kulturagatik lan asko egin duen seinale.

Guk ere saritu nahi dugu Benito, baina gurea ez da etxeko bitrinar jartzeko trofeo horietakoa, gure esker ona baita emateko dugun bakarra.

Eskerrik asko Benito eta zorionak!

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TXORROKAK - BALBULAK

Santiago ezua - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
E-Net
180 0002

Eslerako balbula
AENOR kalitate ziurtaginiduna

LURDES
KANTARDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibil Ondo. 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-mail: zalduia@allianz.es

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:
-Arroin zopa
-Arroin eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

ODITZ

*Pluma zahar eta berriak
ogin eta erdian zehar*

tel. 943 83 00 89

ile apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

OROIMENAREN KUTXA



Zumezko makila guztiak hantxe joan ziren zubitik behera putzura.

PAISAJES ESPAÑOLES SA

JAIOTAKOAK

- Ez da inor jaio.

EZKONDUTAKOAK

- Xabier Santamaria Exposito eta Mirian Amaia Gonzalez Perez, Orion, azaroaren 14an.

HILDAKOAK

- Barbara Otegi San Sebastian, Aian, azaroaren 19an. 87 urte.
- Fanzisko Atorrasagasti Berasategi, Orion, azaroaren 16an. 61 urte.
- Alejandro Oliden Tolosa, Orion, azaroaren 14an. 86 urte.
- Joxemari Alberdi Arruti, Orion, azaroaren 13an. 69 urte.

Maisua, mutilak eta mikeletea

Gerra aurretik, Espainiako II. Errepublikaren garaian, maisu bat izan zen Orion, haren ikasle izandako batek gogora askotan ekartzen zuena. Hezkuntzan gauzak ez ziren orain bezalakoak, oso desberdinak baizik. Eta ez bakarrik orduan dena erdaraz erakusten zitzaielako etxetik euskaldun elebakar ziren neska-mutilei; baziren, oraingo hezkuntza-ereduarekin alderatuz, bestelako bereizgarriak ere. Orduan indarrean zegoen erdarazko harako esaldi hura: *la letra con sangre entra*. Eta maisu hark, behintzat, bere egiten zuen esaldiak zioena: ez denak, baina eskolako baldarrenak-edo egurtzeko ohitura zeukan.

Zeregin horretan laguntzaile zuen ikasle bat, Aia aldeko baserri bateko mutil koskorra. Egunero, goizean, zumezko makila arin eta malguak ekartzen zizkion maisuari. Handik aurrerako maisuaren kontua zen: lezioa ikasi ez edo bihurrikeriaren bat egin zuenari ederki berotuko zion ipurdi aldea.


Ba omen zen mutil bat ipurdia berotuta etxera askotan joaten zena, herriko mikelete baten semea. Garai hartan gurasoek ondo ikusten zuten eskolan ikasle bihurri astindutxo batzuk ematea. Baina mikeletearen semeak jasotzen zuena gehitxo izan ordukoentzat ere! Hala iruditzen zitzaion, behintzat, aitari eta hark ere bazuen autori-

tate pixka bat orduko Orio hartan. Eskolan maisuak aginduko zuen, baina kalea berea zen.

Egun batean, goizean, zubian jarri zen Aia aldeko mutil hornitzailearen zain. Han agertu zen, goizero bezala, lasai-lasai, baserritar gaztea. Baina egun hartan mikeletea zuen zain, berak eskolara zeramatzan zumezko makila haien biktimaren aita. Mikeleteak gaztetxoari eskutetan zituen makila guztiak kendu eta bere aurrean putzura bota zituen zubitik behera, hauxe esanez: *Gaur makilak ziazatik putzura, baina hola-koakek artzen segitzen badek, hurrena heu joango haiz putzura.*

IÑAKI ITURAIN

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



libe
dietista
nutrizionista

LIBE GARMENDIA
Osasun Gaiak eta Dietetikaren Arloko Kargatutako
Tel. 943 894 024 - 943 83 15 27
E-mail: libegarmendia@gmail.com

DIETA PERSONALIZATUA
OSASUN ARLOAN
ELIKARIA TRATAMENDUAK
COMPUTERIZATUTAKO
KONTROLATUTAKO
DIETETIKAK
OSASUN ARLOAN
KONTROLATUTAKO
DIETETIKAK

**ZATOZ
ETA ZAINDU
OSASUNA!**

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

JONE LETE | HAURRESKOLAKO IRAKASLEA

“Jateko ordua garrantzitsua da ohitura onak hartzeko”

Jone antzuolarra da jaiotzez. Egun Aian erroldatuta dago eta bertan bizi da. Lehen urtea du Orioko haurreskolan irakasle 30 urteko gazteak.

Zenbat urte daramatzazu haurreskoletan?

2 kurtso eta erdi egin nituen Zestoan. Aurretik, ordea, ordezkapenak egiten ibili nintzen Irunen eta Donostian.

Aldea ba al da herri batetik besterako haurren artean?

Ez, egia esan ez dago alde-rik. Ezberdintasuna haurreskolaren lokalean eta lana egiteko moduan dago. Haurreskola txikia edo handia izan horizaten dira diferentziak.

Lokala aipatu duzu. Alde handia al dago batzuetatik besteetara?

Egon naizenetatik berriena da Orikoa. Besteen aldean leku askoz gehiago dauka eta horrek jarduera batzuk egiteko abantailak ekarri ditzake.

Nola antolatzen zarete Orioko haurreskolan?

0-1 urteko 2 gela eta 1-2 urteko 3 gela daude. Banaketa adinen arabera egiten da. Urtea hirutan zatitzen dugu eta horrela zatitzen ditugu adin-taldeak.

Haurrek bertan jaten dutezta?

Bai, gehienek bertan jaten dute. Nagusienek batera bazkaltzen dute, ordu berean elkartzen dira jangelan.

Guk mahaian nola egon beharden, kubiertoakerabil-tzen eta halako gauzak irakasten dizkiegu. Jateko ordua garrantzitsua izaten da ohitura onak hartzen joateko.



Antzuolan jaio arren, Aian bizi da gaur egun Jone.

KARKARA

nekin 8ko bi. Gure kasuan gela bakoitzean bi hezitzaile gaude, txikienekin izan ezik, horiekin bakarria dago.

Nolakoa da haurreskolako eguna?

Goizeko 7:30etik arratsaldeko 18:00etara dago irekita, baina haur bakoitzak bere ordutegia du.

9:00ak arte sarrera ordua izaten da, jolas librean egoten dira. 9:15 aldera gelatan banatzen gara eta borobilean jarri eta ipuinak kontatu, abestu, zein gelakide dagoen gelan konturatuarazi... egiten dugu. 10:00etatik 11:00etara psikomotrizitate gela, eskulanak, jolas eurstikoak... horrelako ekintzetan aritzen gara. Giro ona egiten duenean parkera ere joaten gara.

Hori egin eta gero bazkarrarako prestatzen hasten gara. Dena jaso, arropak aldatu, eskuak garbitu eta bazkaldu egiten dugu. Gero berriz ere aldatu, garbitu eta 12:45erako etxera joateko prest jartzen ditugu. Baina bertan geratzen direnak lotara sartzen ditugu 13:00etan.

Esnatu eta aldatu ostean, 15:30 arte edo jolasten egoten dira, meriendatu eta 16:00ak aldera etxera doaz pixkanaka.

Haurtxoeikin beren ordutegira moldatu beharra dago. Beharren arabera jaten dute eta lo egiteko ere beren orduak dituzte.

Zer eskaintzen duzue haurtzaindegi tradizionalak eskaintzen ez duena?

Momentuoro haurra hezitzen ari gara. Egiten den guztia haurraren heziketarako da.

Gure metodologiak helburu batzuk ditu. Ekintza guztiek helburu hezitzailearen bat dute. Plangintza bat gauzatzen dugu urtean zehar.

Haurreskola goizeko 7:30etik arratsaldeko 18:00etara dago irekita, baina haur bakoitzak bere ordutegia du

Zein une izaten da konplikatuena?

Jateko ordu hori izaten da lan gehien suposatzen duena. Irakasle bakoitza bere taldearekin egon arren, guztiak batera egoten dira eta aztoratu egiten dira haurrak. Une horretan sortzen da zarata eta

Gure metodologiak helburu batzuk ditu. Egindako ekintza guztiek helburu hezitzailearen bat dute

iskanbila gehien haurreskolan.

Gelako zenbat irakasle zaudete?

Ume kopuruaren araberrako ratioak daude. Nagusienekin 13 haurreko bi hezitzaile izaten dira eta txikie-

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ														
Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20
Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20
ZARAUTZ - DONOSTIA														
Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39
Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN						ASTEBURUETAN					
Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia	Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30	08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00	09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30	10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00	11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30	12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10	13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30	14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
11:40	12:15	12:25		10:50	11:10	15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30	16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30	17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30	18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10	19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30	20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10	21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30	22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10	22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30	OHARRA: lanegunetan kasero aragidun ordutako autobusak urtebetez pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, guztiak pasatzen dira. Kasero lurraldeko orduak larunbatetako (laneguna) zerbitzuetan bakarrik dagozkie.					
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10						
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30	Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek daraina. Zerbitzueri buruzko informazioa lortzeko zerbitzu bide daude:					
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30						
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30	www.landabus.com					
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10						
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30	Tf. 943 24 01 14					
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30						
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00	ama-a 5280 zenbakira					

ITSASOA

Azaroa	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
27	00:08 eta 12:26	06:12 eta 18:40	
28	01:01 eta 13:19	07:06 eta 19:29	
29	01:47 eta 14:06	07:52 eta 20:12	
30	02:28 eta 14:50	08:35 eta 20:53	
01	03:09 eta 15:33	09:18 eta 21:34	
02	03:50 eta 16:16	10:01 eta 22:16	
03	04:33 eta 17:02	10:46 eta 23:00	
04	05:18 eta 17:50	11:33 eta 23:46	
05	06:06 eta 18:40	12:23 eta _____	
06	06:58 eta 19:34	00:36 eta 13:15	
07	07:54 eta 20:32	01:29 eta 14:11	
08	08:56 eta 21:37	02:27 eta 15:13	
09	10:02 eta 22:47	03:30 eta 16:19	
10	11:13 eta 23:56	04:39 eta 17:27	
11	12:24 eta _____	05:50 eta 18:33	

ZAINTZAKO BOTIKAK

AZAROA/ABENDUA ■ 27an, Mutiozabal. ■ 28an eta 29an, Etxeberria. ■ 30ean, Azaldegia. ■ 1ean, Zulaika. ■ 2an, Iriarte. ■ 3an, Etxeberria. ■ 4an, Larrañaga. ■ 5etik 11ra, Lasa. ■ 12an eta 13an, G. Artiñano. ■ 14an, Iriarte. ■ 15ean, Larrañaga. ■ 16an, Mutiozabal. ■ 17an, Etxeberria. ■ 18an, G. Artiñano ■ 19an eta 20an, Azaldegia.	Azaldegia: Urdaneta kalea, 8 943 13 31 83 Zarautz Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17 943 83 23 98 Zarautz Mutiozabal: Kale Nagusia, 12 943 83 29 70 Zarautz Larrañaga: S. Frantzisko, 16 943 13 38 14 Zarautz Lasa: Herriko Plaza 943 83 09 36 Orio G. Artiñano: Zigordia kalea, 17 943 13 40 19 Zarautz Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz
---	--

MANIFESTAZIOA

■ Azaroaren 28an, Erraustetaren Aurkako Herri Plataformen Koordinadorak deituta manifestazioa Donostian, *Partehartzeari errespetua, Erraustetarik ez! Atez ateko bilketa* lelopean, 17:00etan, Donostiako Boulevardetik.

IKASTAROA

■ Orion, azaroaren 27an eta abenduaren 11n, 19:00etan, gastronomia ikastaroak Toki Alai elkartearen eskutik, Udalaren eta AIALA ostalaritza eskolaren laguntzaz. 5 euro balio du ikastaro bakoitzak.

■ Orion, abenduaren 4an, 19:00etan, ardo dastatze ikastaroa Toki Alai elkarteak antolatuta. 5 euro balio du.

BABARRUN JANA

■ Orion, abenduaren 13an, Talai Mendik antolatutako babarrun jana. Izen-ematea Uranga burdindegian.

GAZTAIN EGUNA

■ Aian, azaroaren 29an, Lardizabal eskolako guraso elkarteak antolatuta. 16:30ean, kultur etxean, *Ice Age 3* filma emango dute, gazteleraz. Ondoren, pilotalekuan edo plazan, gaztain-jana egingo da. Bizikleta eta otar bana zozketatuko dituzte.

**Haur-masaje ikastaroa**

Abenduaren 11n hasi eta bost ostiraletan, haur-masaje ikastaroa izango da 10 hilabete bitarteko jaioberriak dituzten gurasoentzako, baita haurdun daudenentzat ere.

10:00etatik 12:00etara izango dira eskolak eta, guztira, 85 euro balio du ikastaroak. Izena emateko kultur etxera jo behar da eta bertan informazio gehiago zabalduko da.

ERROMERIA

■ Aian, Andatza auzoan, azaroaren 29an, 18:30etik 21:30era, erromeria izango da Arkaitz Ailur eta Agurtzane Mujika trikitilariekin, Andatzako Erromeri Elkarteak

antolatuta.

■ Aian, Andatza auzoan, abenduaren 6an, 18:30etik 21:30era, erromeria izango da Astiazaran anaiak eta Leire trikitilariekin, Andatzako Erromeri Elkarteak antolatuta.

SILLO BOLAK

■ Aian, abenduaren 15ean. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 643 81 65 00; edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

PODOLOGIA

■ Aian, abenduaren 12an. Txanda hartzeko udaletxera deitu behar da: 943 13 11 44.

ERAKUSKETA

■ Orion, abendu osoan, kultur etxean, Begoña Zaldia margolariaren erakusketa ikusgai.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, abenduaren 16an, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzietan.

ELKARRETARATZEA

■ Orion, azaroaren 27an, euskal presoak Euskal Herriratzetaren aldeko elkarretaratze isila, 20:00etan plazan.

BERTSOAK

■ Donostian, azaroaren 29an, belodromoan, Txapelketa Nagusiko azken finalerdia. Iñaki Gurrutxagak kantatuko du bertan, Uxue Alberdi, Arkaitz Estiballes, Maialen Lujanbio, Jon Maia, eta Aitor Sarriegi bertsolariekin.

ZINGIRA JATETXEA



apaltzeko
edo
bazkaltzeko

FESTETAKO
MENU BEREZIAK:

18-30€



Zatoz gurera!

Olarkoegia auzoa. Ubegun. Aia-Orio. 943 83 37 62 / 615 794 428

